

## **BERMEO / Liburuak izan dira asteburuko protagonista**

**Bermeoko liburutegiak herriko gazteen narrazio onenak saritu zituen bariku arratsaldean.**

OLAIA ZABALONDO

Liburuaren eguna izan zen barikuan eta, horren harira, hainbat izan dira eskualdean izan diren jarduerak.

Ohi legez, Bermeoko eta Gernika-Lumoko liburutegietan liburuak banatu zituzten barikuan erabiltzaileen artean. Bermeon, gainera, krabelinak ere banatu zituzten. Arratsaldean 'Bermeo' Uria narrazio lehiaketako sari banaketa ekitaldia egin zuten Nestor Basterretxea aretoan.

Ean, bestalde, herritarrek liburuak trukatzeko aukera izan zuten zapatu goizean. Iaz egin bezala, liburu azoka egin zuten Eskolondon. Muxikan barikuan ospatuko dute liburuaren eguna.

### **'Bermeo Uria'-ko irabazleak**

LH 2. zikloa. Maialen Agirre Aspiazu: 'Kai arraina'...

LH 3. zikloa. Naia Lertxundi Beristain: 'Munduan atzera'.

DBH 1. zikloa. Olaia Casina Astorkiza: 'Amuma Matilde Kafetegiko armosuak'.

DBH 2. zikloa. Leire Gotxi: 'Sentipen gogorrak'.

Batxillergoa. Nagore Beitia Telletxea: 'Heriotzak etxeko atea jotzen duenean'.